

ERRUKIAREN SEME-ALABAK

AITA-AMA JAINKOA ERRUKIZKO ITSASO, SEME EGITERAINO GAIUZU JASO

Doinua: "Hona Bildots ezta"

1

Aita danen Aita
ta amen ama,
guretzat erruki
hutsa zarana.

5

Eleizama dogu
zure ordezeko,
errukiz ez bada
ez da baleko.

2

Ebanjeliotik
ondo dakigu:
errukia zara,
Jesus testigu.

6

Errukitzea da
bide zuzena,
bestelan alperrik
kristau izena.

3

Ezin gara salbau
geure merituz,
bai Jaunaren graziaz
ta Espirituz.

7

Errukiz ez bada
ez da zerurik,
han ez da onartzen
beste dirurik.

4

Jaunak jarri deusku
Ama zaindari,
errukiz beterik
zu Andra Mari.

8

Errukiak aurten
bere urtea,
zabalik daukagu
zeru-atea.

A.Martzel

